



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

## **Raisa Álavaren eta Ander Sagastiberriren “ETA CARINAE” erakusketa zabaltzeko ekitaldia**

- **Irailan, Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan (Hurtado Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo), Bizkaiko Batzar Nagusien eta UPV/EHU-ko Arte Eder Fakultatearen arteko lankidetzak akordioaren barruan.**

Raisa Álavaren eta Ander Sagastiberriren “ETA CARINAE” da Bizkaiko Batzar Nagusien eta Arte Eder Fakultatearen erakusketa apustu barria, hori be, erakunde biek joan dan legealdian abiatu eben lankidetzak programatik sortutakoa. Programa horren bitartez, EHU-ko talentu gazteek uriaren erdigunean lekua izango dabe euren sorkuntza lanak erakusteko. Proiektu komuna 26 artelanek –14 margolan, 10 zeramika eta marrazki 2–eratzten dabe, eta irail osoan egongo da zabalik, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00etara, astelehenetik barikura; eta zapatuetan eguerdiko 14:00ak arte.

Alde batetik, Álavak ahalegina egiten dau bizirik egotearen poza eta mina ikusleari heldu arazoteko. Bere laminetako batzuk alegoriaz kargatuta dagoz; beste batzuetan, arreta bilatzen daben eta irriparrea lapurtzen deusuen izaki atseginak ikusten dira. Batzar Nagusietako galeria txikian atzera eta aurrera ibiliko zara, bizirik egotearen poza eta mina aurkituz. Bere marrazkietan hautematen dogun errealdadea, eta aurkitzeak bildur gehiago emoten dauena, nahasten ditu. Hain unibertso aberatsak eta zehatzak adjektibo asko eta asko jaso daikez.

Sagastiberrik, bere aldetik, uri bateko bizitzan eta gaztezeroan dagozan gatazkei buruz egiten dau berba. Bere margolanek psikodeliara eroaten gaitue, misterioa, mitologia eta umorea bezalako ardurak ahaztu barik. Paisaiak ez dira ulertzen uria euren bilakatzen daben, uriaren odola diran, bertan bizi eta salto egiten daben eta metropoliaren artikulazinoetatik plasma ponpatzen daben izaki horreen maitasun, anaitasun eta gatazka barik. Margolanek bizitzari, gaztezeroari, buruz, mende honetako eta hurrengo mendeetako arazo bati buruz, egiten dabe berba.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Apertura de la exposición “ETA CARINAE” de Raisa Álava y Ander Sagastiberri**

- **Durante septiembre, en la sala de exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), en el marco del programa de colaboración que mantienen el parlamento vizcaíno y la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU.**

Bilbao, a 17 de septiembre de 2015

“ETA CARINAE” de Raisa Álava y Ander Sagastiberri, es la nueva apuesta expositiva de las Juntas Generales y la Facultad de Bellas Artes, nacida una vez más del programa de colaboración que ambas instituciones crearon durante la pasada legislatura, mediante la que jóvenes talentos de la UPV disfrutaron de un espacio céntrico para mostrar sus creaciones. El proyecto común, que se construye a través de 26 obras –14 pinturas, 10 cerámicas y 2 dibujos- permanecerá abierto todo el mes de septiembre, con horario de 8 de la mañana a 8 de la tarde, de lunes a viernes; y los sábados, hasta las 2 del mediodía.

Por un lado, Álava intenta trasladar al espectador el gozo y el tormento que supone estar vivo. Algunas de sus láminas están cargadas de alegorías; otras de afables criaturas en busca de atención que te roban una sonrisa. Te mueves por la pequeña galería de Juntas Generales descubriendo el gozo y el tormento que supone estar vivo. Mezcla en sus dibujos la realidad que percibimos y la que da un poquito más miedo descubrir. Su universo, tan rico y tan preciso, es compatible con innumerables adjetivos.

Por su parte, Sagastiberri habla de los conflictos presentes en la vida y en la juventud dentro del marco de la ciudad. Sus pinturas remiten a la psicodelia, sin olvidar preocupaciones como el misterio, la mitología, y el humor. Sus paisajes no se entienden sin el amor, la fraternidad, y el conflicto de estos seres que hacen suya la ciudad, que son su sangre, que viven, saltan y bombean plasma por las articulaciones de la metrópoli. Estas pinturas hablan de la vida, de la juventud, de un problema del siglo presente, y también de siglos futuros.